

**EUSKADIKO KIROL PORTUAK ERAKUNDEAREN
KALITATE-POLITIKA, INGURUMEN, LANEKO
SEGURTASUN ETA OSASUN ETA AUKERA-
BERDINTASUN ARLOETAN**

'Euskadiko Kirol Portuak' izeneko erakundea zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, eta honako helburu hauek ditu: nautika eta aisialdiko erabilera duten portuen kudeaketa integrala garatzea, gobernuak agintzen dizkion portu-azpiegiturak eta instalazioak eraikitzea, bai eta azpiegitura eta instalazio horiek artatu, kudeatu eta administratzea ere.

Era berean, Euskadiko Kirol Portuak lankidetzat teknikoak du EAEko administrazio orokorrean portuen arloan eskumena duen sailarekin, nautika eta aisialdiko erabilera duten portuak planifikatu, sustatu, garatu eta programatzeko jarduketetarako dagokienez.

Gaur egun, nautika eta aisialdiko erabilera duten portu hauek ditu atxikita:

Hondarribia, Beteranoak- Moila, Donostia, Orio, Getaria, Deba, Mutriku, Bermeo, Mundaka, Armintza, Plentzia eta Lekeitio.

Euskadiko Kirol Portuak erakundeak kalitate-politika hau barne hartzen duen kudeaketa-sistema integratua dauka ezarrita, eta horren bidez konpromiso hauek hartzen ditu:

- Zerbitzuak hobetzeko jarrera etengabea izatea, bai eta instalazioak mantentzeko eta kontserbatzeko jarrera ere.
- Bezeroen beharrak eta igurikimenak asetzea, haien iradokizunei eta erreklamazioei etengabeko erantzuna emanez.
- Alderdi interesdun guztien eskakizunak eta igurikimenak betetzea, bai eta onetsirik dagoen indarreko araudia ere, bertako eta azpikontratutako langileen ingurumen- eta segurtasun-kudeaketari eragiten diona barne, bereziki kalteen prebentzioa eta osasunaren babesa arautzen dituen, bai eta horien informazioa, prestakuntza, kontsulta eta parte-hartzea ere.
- Eguneroko jardura eta ingurumenaren babesa bateragarri egitea. Horregatik, bere gain hartzen du kutsadura prebenitzeko konpromisoa, ingurumena erakundearen eguneroko kudeaketan txertatuz, zerbitzuak emateko zuzenean eratorritako ingurumen-inpaktuetan eta jardura bizi-zikloaren ikuspegitik aztertuz eratorritako beste alderdi batzuetan sakonduz.
- Baliatzen diren prozesuak, teknikak eta lehengaiak aztertzea, langileei eta ingurumenari arrisku gutxien eragiten dietenak aukeratuz.
- Prebentzio-jarduerak garatzeko behar beste baliabide esleitzea, identifikatzen diren arriskuen arabera eta jarduerekin loturik dauden arriskuak kenduz, ahal den guztietan.
- Emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna integratzen duten politikak ezartzea eta garatzea, zuzenean edo zeharka sexuaren zioz diskriminaziorik egin gabe, eta erakundearen benetako berdintasuna lortzeko neurriak bultzatzea eta sustatzea.
- Kultura positiboa sortzea, erakundearen arlo horietan duen jardura etengabe hobetze aldera.

Gure zerbitzuaren kalitatea, gure ingurumen-jardura eta segurtasuna eta osasuna etengabe hobetzea lehenetsutako helburua da Euskadiko Kirol Portuak erakundearentzat; horrenbestez, kudeaketa hori hobetzeko beharrezkoak diren adierazleak eta helburuak ezarriko ditugu urtero.

O.E.

Zuzendaritza Nagusia



Edurne Egaña Manterola

Gasteiz, 2023ko azaroaren 17